En cuanto a las informaciones de sucesos, existen palabras como “reyerta”, “venganza”, “clanes” que se ven a menudo relacionadas solo con algunos grupos o individuos. “Bandas latinas”, “mafia rumana”, “barrio gitano” y otros lugares comunes pueden estigmatizar a los protagonistas de las noticias. No existen “barrios gitanos” ni “mafias del Este”. Estas expresiones no reflejan exactamente la realidad y refuerzan el prejuicio. Ni todas las personas jóvenes que participan en una pelea son integrantes de una “banda”, ni deben tener un mismo origen, como no todos los y las carteristas son de una determinada nacionalidad ni tampoco de una “mafia”.

## **Erradica palabras que deshumanizan.**

El análisis en el año 2021 de más 3.560 informaciones de prensa diaria en España relacionadas con las migraciones, de más de 26 medios de comunicación, arrojó un dato abrumador. Más del 51% de estas informaciones no mencionan ni siquiera una vez el término “persona” cuando se refieren a sujetos involucrados en informaciones sobre procesos migratorios, ni siquiera “personas migrantes”.

Es habitual encontrarse el uso del término “ilegal” para referirse a personas en situación administrativa irregular o en procesos migratorios genéricos. Lo mismo ocurre con los términos “refugiados” o “refugiadas” de forma genérica.



O cuando habitualmente se denomina “subsaharianos” a personas que, en realidad, llegan de países concretos y en circunstancias muy diversas a Europa, no son un colectivo ni forman parte de una realidad homogénea. Además, es un término erróneo porque apela a un lugar ambiguo, amplio y poco concreto como pueden ser todos países del continente africano que no limitan con el mar Mediterráneo. El propio concepto de “África subsahariana” es visto por la intelectualidad, academicistas y escritoras y escritores africanos como una imposición eurocéntrica, no correspondiente a la realidad africana.

En cualquier caso, el uso de todos estos términos favorece la deshumanización y antepone la condición migratoria a la humana obviando la palabra “persona”, y la atención injustificada a la nacionalidad o el uso de titulares sensacionalistas. A menudo responden a un propósito manifiesto de restar valor a la vida humana, parece que vale menos decir que “se ahogan migrantes” en una embarcación en el Mediterráneo que si “se ahogan personas”.

## **8 Evita la dramatización.**

Rehúye de la creación de conflictos y dramatizarlos. Lógicamente se han de evitar los recursos técnicos y periodísticos que persiguen el objetivo de favorecer el espectáculo. Ya sean literarios o audiovisuales. Evita las imágenes que fomenten la tensión narrativa en quienes

las reciben, no redundes con titulares, pies de fotos ni musicalices piezas audiovisuales de forma sensacionalista.

## **9 Identifica, cita y atribuye.**

No permitas la propagación de bulos, ruido e ideas vagas sin autoría. Todas la “opiniones impopulares”, declaraciones corrosivas, o rumores deben estar atribuidos, entrecomillados y ligados a una cita y una fuente en concreto. Ya sea un organismo, una persona con nombres y apellidos o una institución. No es riguroso ni responsable permitirse el “se dice, “se cuenta”, “fuentes cercanas”. Periodistas y medios deben promover el rechazo a las actitudes basadas en la ignorancia. En la medida de lo posible, hay que atribuir todas estas citas y argumentos.

## **10 Rehúye la información no relevante: color, etnia, país y religión.**

En la práctica profesional cotidiana y en el afán por tener presentes los elementos básicos de la información periodística, introducimos ítems que parecen complementar la noticia, aunque no lo sean por ellos mismos. La información sobre el grupo étnico, el color de la piel, el país de origen, la religión o la cultura de una persona habitualmente no es ni necesario ni relevante. Y el uso de estas descripciones con una finalidad tendenciosa, xenófoba o racista debe ser denunciado y rehusado por todos los medios de comunicación. Tampoco es admisible

la identificación de personas de un origen concreto con determinada actividad ilegal o delictiva, puesto que puede ser considerada como un atributo o característica del grupo en cuestión. La tendencia a atribuir clichés de origen nacional a las personas disminuirá en función de la calidad de las informaciones y de los matices aportados sobre los países de procedencia.

Esto vale también para la manipulación política del hecho migratorio y de las personas migradas. Debe tenerse presente, además, que la condición de persona migrante es, por definición, transitoria y que si generalmente se prolonga es por la precariedad de los mecanismos políticos, sociales y culturales de incorporación.

#### **11 Busca profundidad en los relatos.**

Busca y explora nuevas maneras de escribir o contar los temas. Invierte tiempo en pasar un día completo con las protagonistas de tus historias. Por ejemplo, personas transgénero, una persona con capacidades físicas diferentes o alguien con dificultades económicas. Comparte tiempo para entender mejor y de verdad cómo es su día a día. Cuáles son sus esperanzas y sus miedos. ¿Concuerdan con los estereotipos o ideas que tenías? Explora la historia a través de experiencias. Encuentra el detalle, lo singular y original, pero también lo común, lo ordinario. Graba sonidos, toma notas, filma nuevos planos que representen la diversidad.

#### **12 Construye comunidades, participa.**

Cultiva tus fuentes en otras comunidades (religiosas, étnicas, nacionales, físicas o de género) diferentes a la tuya. Encuentra gente con la que charlar y sentirte cómodo/a y que desean mantenerte informada como periodista de las novedades que ocurren a su alrededor. Participa en sus celebraciones, actividades y eventos. Establece contactos con organizaciones sociales, sindicatos, asociaciones o pequeñas ONGs en las que esas personas participan y están representadas. Pregúntales qué aspectos de sus vidas creen que no se cubren o muestran en los medios de comunicación. Pídeles que se pongan en contacto contigo cuando algo les ocurra o sobre sus inquietudes sociales, políticas o económicas que les afecten. Escoge un lugar donde la persona se sienta cómoda y segura.

#### **13 Establece vínculos con tus fuentes.**

Al contactar una persona que vaya a ser entrevistada, primero, establece una relación profesional: deja claros tus objetivos, tus pretensiones como periodista. Muestra respeto y humanidad. Desarrolla un vínculo de confianza. Preserva su privacidad, anonimato y confidencialidad, si así lo requiere la persona entrevistada. Sé sensible y evita un abordaje o acercamiento agresivo, a menudo las mismas prisas, la urgencia de completar una información pueden resultar rudas o violentas para

una persona. Es importante que tengas en consideración.

#### 14 **Ensancha y amplía las audiencias.**

Incluye en las informaciones personas que provienen de diferentes contextos. Esto no es tan solo una cuestión de justicia y balance, es importante para los medios también desde una perspectiva de negocio. Muchos medios limitan toda su potencial audiencia a la perspectiva de un reducido grupo de personas. Si se hiciese el pequeño esfuerzo de expandir las coberturas de sus noticias y reportajes a otras comunidades, a subrayar los méritos de sus miembros y protagonistas, sin duda podrían a la vez expandir y ensanchar su audiencia.

#### 15 **Imágenes que sumen.**

Al igual que los titulares, las imágenes de una pieza informativa aportan mucha información con un simple vistazo. Sé igual de riguroso con la elección de las fotos que acompañan al texto que con las palabras que utilizamos al escribir.

Es importante hacer uso de imágenes que esté directamente relacionadas con la información que estés contando, ya que es habitual añadir imágenes de archivo en las noticias relacionadas con el hecho migratorio. Asimismo, al igual que con la información en sí misma, hay que evitar usar por defecto siempre imágenes de jóvenes en situación de exclusión social, en las vallas y fronteras o en centros de internamiento y tratar de

hacer fotos que muestren a la persona migrante en su condición de ciudadano y no solo de migrante. Es decir, hay que Retratar su día a día. De lo contrario, se crea el riesgo de generar estereotipos. En definitiva, una imagen siempre ha de sumar calidad a la información, nunca al revés.



#### **AVISO:**

**Esta guía es una herramienta de trabajo abierta a nuevas aportaciones y su éxito dependerá de la actitud decidida de los profesionales de la comunicación contra las actitudes racistas y xenófobas. La implicación de los medios de comunicación en un compromiso común puede construir una sociedad más abierta y solidaria.**

## ESTILO GIDA ETA AHOLKUAK

### 1 Gertaerak, datuak eta zorrotasuna.

Landu eszeptizismoa. Egiaztatu datuak. Kontrastatu lekukotasunak eta argumetuak. Ez onartu besterik gabe entzun duzuna edo kontatu dizutena. Egiaztatu informazioak. Jokatu trebezia eta saiatu hutsegiteei aitzinatzen, ez onartu inkestak, ehunekoak eta baieztapen irmoak, aserti-boak eta dogmatikoak aitzinetik kontrastatu gabe, zalantzarako mekanismorik ezarri gabe, hutsegiteak ametitzeko prest egon gabe eta sakoneko elkarriketak sustatu gabe.

Zurrunmurrak, aurreiritziak eta diskurtso sinplistik bihotzean ernatu eta hozitzen dira. Sentimenduak eta erraiak hunkitzen dituzte: barrenak. Gorrotoa ez dago arrazoimenaren neurrietara ekartzetik. Kazetaritza, informazio objektiboa eta datuak, ordea, adimenera doaz eta argumentuen bidez saiatzten dira falazia edo leku komun horiek desaktibatzen.

### 2 Titulu labur eta arinak, baina zuzenak.

Hedabideak, titulu baten bitartez, iritzi bat osatzeko gauza dira, baina, maiz, lerro bateko edo biko titulu horiek orobat erredaktorearen baitan errotuak dauden ideiak izaten dira. Hori dela eta, kontuz ibili behar da tituluekin eta erakartzeko erabiltzen diren notizia atalekin; izan ere, labur beharrak zehaztasun falta ekar edo estereotipoak susta baitituzake.

Hedabide digitaletan horretarako joera izan ohi dute; izan ere, sarean bisitak irabazteko dagoen lehiakortasun eta borroka handia dela-bide clickbait erraten zaien tituluetara jotzen dute.

### 3 Testuinguruko informazioa eman.

Ziurtatu informazioak behar diren tokian eta unean aurkeztuak daudela.

Ez zentratu anekdotetan edo berehalako efektua duten alderdi ikusgarrietan. Gaineratu iraganean edo aitzinagotik izaniko gertaeren informazioa. Deus ez da gertatzen bat-batean. Bilatu informazioa zorrotasunez ematen laguntzen duten datuak eta kopuruak, edo eman ikuspegi globala edo unibertsala. Bilatu orobat paralelismoak eta antzekotasunak. Adibidez, erlijio aniztasunarekin zerikusia duten berriak ematean, saiatu erreferente propioekin irakur dezakeenari gerturatzten.

Enplegu faltak kolektibo bat bereziki jotzen badu, ikertu kausak eta sorburua, “alferkeria” egotzi beharrean. Horrek guztiak toki jakin bateko gorabeherak hobeki konprenitzen lagunduko digute. Horrelako informazioak jasota, albiste baten hartzaileari funtsezkoak diren puntuak konpreniarazten lagunduko diogu. Ondo dago garrantzi handiagoko gorabehera bat islatzeko edo kondentsatzeko gaitasuna duen kasu bat atzematea, baina, hain zuzen ere, horregatik da inportantea informazioa bere testuinguruan ematea.

#### 4 Oreaka eta elkarrizketa.

Gatazkak kontatu behar diren kasuan, eman espazioa inplikaturik diren alde guztiei, eta sustatu elkarrizketa, betiere “arrazoizko desadostasunerako” tartea utziz. Horrek ez du esan nahi nahitaez ekidistantea edo ekuanimea izan beharra dagoenik, baina bai egon behar dutela alderdi guztiek irudikatuak, buruz buru paratzeko gisan.

#### 5 Iturri aniztasuna.

Hedabideek informazio iturri batzuk lehenesten dituzte beste batzuen kaltean. Fidagarritasun periodistikoak beti jotzen du alderdi batera, instituzioetara, bai publikoetara eta bai pribatuetara. Gehien kontsultatzen diren iturriak hauek dira, ordena honetan: ministerioak eta sailak, gutxiengoetan adituak direnak, gizarte zerbitzuak, GKEak, segurtasun indarrak, udalak, eta abar. Oso gutxitan kontsultatzen dituzte protagonistak.

Informazioa ekoizteko dauden errutinek eta informazio arloan dagoen prekarietateak eta egonkortasun gabeziak ez dute justifikatzen jokabide hori. Erakunde askok bozeramaile eta informazio propioak dituzte. Kazetaritzaren profesionalak iturri berri horiek erabiltzeko ohitura hartu behar dute, eta informatzaile, aditu eta espezialista posibleekin mintzatu behar dute gorabehera horietan sakontzeko eta beste ikuspuntu bat emateko.

#### 6 Orokortasunak saihestu.

El periodismo de calidad debe explicar Kalitatezko kazetaritzak egitateak azaldu behar ditu, eta ez aitzinetik zenituen ideiek desbideratzen utzi. Adibidez, “immigrazioaren arazoa” esanez, baieztapen oker bat eginen dugu. Orokortasun sistematikoak publikoa gertura dezake, eta, itxuran, konprenigarriagoa egin albistea, baina larriki desitxuratu eta sinplifikatzen du. Asmo on horrek errealitatearen ikusmolde manikeoa ekar lezake. Badago joera periodistiko bat aniztasun soziala sinplifikatzeko. Medioek irudi zehatz bat bilatu ohi dute, estereotiporantz eramanez gaituen egiazko gertaera bat.

Ez tratatu talde linguistiko, erlijioso edo etniko bateko kideak beren komunitateko bozeramaile balira bezala. Bakoitzak bere pentsamoldea du, eta eskubidea du era independentean iritziak eta ideiak plazaratzeko, zuzenak izan edo ez, burutsuak izan edo ez, zentsuragarriak izan edo ez. Jatorria edo ezaugarriak partekatzen dituzten giza taldeak ere ez dira homogeeniak eta elkarren iduriak. Era berean, garrantzitsua da sinplifikazioak eta orokortasunak saihestea pertsona migratzaileen edo gutxiengo kulturaletako kide direnen jatorrizko herrialdeez informatzeko orduan. Errate batera, ijito herria; izan ere, komunitate aniztuna eta heterogeneoa da. Topikoen pentsamolde eta jarrera baztertzailerak indartzen dituzte jomuga diren giza taldeetan, eta horrela zailagoa da pertsonak elkarrengana hurbiltzea.

## 7 Erabili MINTZAMOLDE NEUTROA. Hitzetan zama handia jartzea ekidin.

Solas guztiak dute zama bat. Guzti-guztiak dituzte esanahi desberdinak. Solasek iritzia sorrarazten dute. Lengoaiak munduak erakitzen ditu. Terminoak tentuz hautatzeak ohiko eta eguneroko zeregina izan behar du; kazetaritza onak horixe du atxikian. Esanahi egokia, zuzena eta zehatza asma-tu beharra dago. Are gehiago, errealitate konplexuak lantzen ari garenean. Erabili mintzamolde neutroa, eta erauzi hedabideetan ohiko bihurtu diren espresioak. Oraindik ohikoa da hedabideetan “inbasio”, “uholde” eta “olatu handi” modukoak entzutea. Hitz horiek diskurtso kriminalizatzaileak eratzen dituzte migrazioaz denaz bezainbatean; gizatasuna kenarazi ere kenarazten dute, eta “pertsona” hitzaren omisioa dute ondorio.

Gehiegizko balorazioak ere saihestu beharra dago, hala nola “basati” eta “izugarri” adjektiboak. Besteak beste “eskolen getizazioa” aipatzen dugunean. Ghetto terminoak herritarren zati baten bazterketa esan nahi du. Zuzena litzateke atzerriko jatorria duten “ikasleen kontzentrazioa” edo gurasoak beste herrialde batzuetakoak dituzten ikasleen dentsitate handiagoa edo txikiagoa... Bestela, ez dugu aldezen biztanleria soslai berriak sorrarazten duen aldaketa demografiko eta sozialaren onarpena, eta maiz gizartearen iruditerian oraindik badi-rauten estereotipo ezkorrak indartzen ditu.

Gertaeren informazioari dagokionez, badi-ra zenbait solas (“istilu”, “mendeku”, “klan”)

anitzetan giza talde edo norbanako jakinekin bakarrik erabiltzen direnak. “Pandillak”, “mafia errumaniarra”, “ijito auzoa” eta ohiko beste toki batzuek albisteetako protagonistak estigmatiza ditzakete. Ez dago “ijito auzorik” ezta “ekialdeko mafiarik” ere. Espresio horiek ez dute behar bezala adierazten errealitatea, eta aurreiritziak indartzen dituzte. Joka aritzen diren gazte guztiak ez dira “pandilla” batekoak izaten, ez dute jatorri bera izan beharrik, eta karterista guztiak ere ez dute naziotasun bera izaten, ezta “mafia” bera ere.

## Gizatasuna kentzen duten hitzak erauzi

2021. urtean, migrazioarekin loturik Espainiako eguneroko prentsako 26 hedabide baino gehiagoren 3.560 albiste baino gehiago aztertuta, datu izugarri bat atera zen. Albisteen %51k baino gehiagok ez zuten behin bada ere “pertsona” terminoa erabili migrazio prozesuei buruzko informazioetan murgilduta zeuden subjektuez mintzatzeko, ezta “pertsona migratzaile” ere.

Administrazio egoera irregularrean edo migrazio prozesu generikoetan daudenei erreferentzia egiteko, ohikoa da “ilegal” terminoa aurkitzea. Gauza bera gertatzen da, oro har, “errefuxiatu” terminoarekin.

Edo “Saharaz hegoaldekoak” esan ohi zaiekin, zeinak, egiaz, herrialde jakinetatik eta oso zirkunstantzia ugariengatik ailegatzen baitira Europara; ez dira kolektibo bat eta ez dute errealitate homogeen bat osatzen. Gainera, okerreko termino bat da, ambigua, zabala eta zehaztasun gutxikoa

den toki bati egiten baitio erreferentzia, hau da, Mediterraneoarekin mugarik egiten ez duten Afrikako herrialde guztiei. “Saharaz hegoaldeko Afrika” kontzeptua bera inposizio eurozentrikotzat dute Afrikako intelektual, akademizista eta idazleek, Afrikako errealtatea ez dutelako islatzen.

Nolanahi ere, termino horiek guztiak erabili-ta, gizatasuna areago galarazten dugu, eta migrazioaren ezaugarria gizakiarenaren gaineratik jartzen dugu “pertsona” hitza alde batera utzita; halaber, naziotasunari beharez duen arreta ematen diogu, eta titulu sentsazionalistak ateratzen ditugu. Maiz, giza bizitzari balioa kentzeko xede ageriko bat izaten da; badirudi Mediterraneoan itsasontzi bateko “migratzaileak ito dira” errateak gutxiago balio duela “jendea itota hil da” errateak baino.

## **8 Identifikatu, aipatu eta egotzi.**

Ez hedatu gezurrak, zurrumurruak eta autorerik ez duten ideia lausoak. “Gaizki ikusita dauden iritzi” guztiak, adierazpen mingarriak eta zurrumurruak komatxo artean eman behar dira, eta aipu eta iturri jakin bati loturik agertu behar dute. Izan organismo bati, izan izen-abizenak dituen norbaiti eta izan instituzio bati. Axolagabeki jokatzeko da “batzuek diotenez”, “erraten dute”, “inguruan diote” eta horrelakoak erabiltzean. Kazetariak eta komunikabideek ezjakintasunean oinarrituriko jarrerak arbuiatu behar dituzte. Ahal den heinean, aipu eta argumentu guztiak norbaiti egotzi behar zaizkio.

## **9 Dramatizatzea saihestu.**

Ez sorrarazi gatazkak eta ez dramatizatu. Jakina, saihestu egin behar dira ikuskizuna helburu duten baliabide tekniko eta periodistikoak. Berdin dio literarioak izan eta ikus-entzunezkoen arlokoak izan. Saihestu hartzailearengan tentsio narratiboa sustatzen duten irudiak, ez errepikatu tituluak eta argazki oinak, ez irudikatu ikus-entzunezko piezak era sentsazionalistan.

## **10 Garrantzirik ez duen informaziotik alde egin: kolorea, etnia, herrialdea eta erlijioa.**

Lanbidearen egunerokoan, informazio-kazetaritzaren oinarritzko elementuak presente izateko afanean, informazioa osatzen dutela iruditzen zaizkigun itemak sartzen ditugu, nahiz eta berez horrelako funtziorik ez izan.

Pertsona baten talde etnikoaren, larruazaleko kolorearen, jatorrizko herrialdearen, erlijioaren nahiz kulturaren gaineko informazioa ez da ez beharrezkoa eta ez adierazgarria. Eta, horrelako deskripzioak alderdikeriaz nahiz izaera xenofobo edo arrazistaz erabiltzen badira, hedabide guztiek salatu eta arbuiatu behar dituzte.

Jatorri jakin bateko pertsonak legez kanpoko edo delituzko jarduera batekin identifikatzea ere ez da onargarria; izan ere, talde horren ezaugarria balitz bezala kontsidera liteke. Pertsonen jatorrizko nazioaren kliseak atxikitze joera apaldu egingen da nolakoak diren herrialdeaz emaniko infor-

mazioaren kalitatea eta xehetasunak.

Horrek berdin balio du migrazioen eta pertsona migratzaileen egitateak politikoki manipulatzeko direnerako. Aintzat hartu beharra dago pertsona migratzailea berez denbora jakin baterako etortzen dela eta egonaldia luzatzen bada gizarteratzeko dauden mekanismo politiko, sozial eta kultural prekarioengatik izaten dela.

### **11 Kontakizunetan sakontasuna bilatu.**

Bilatu eta probatu gaiak idazteko edo kontatzeko modu berriak. Hartu egun oso bat zure kontakizunetako protagonistekin pasatzeko. Esate baterako, pertsona transgenero batekin, gaitasun fisiko desberdinak dituen batekin edo zailtasun ekonomikoak dituen batekin. Hartu denbora haien egunerokoa zinez nolakoa den hobeki ulertzeko. Nolako itxaropenak eta beldurak dituzten ezagutzeko. Bat egiten dute zenituen estereotipoekin eta ideiekin? Esporatu istorioa haien bizipenen bitartez. Aurkitu xehetasuna, berezitasuna eta originaltasuna, baina baita ohikotasuna eta arruntasuna ere. Grabatu soinuak, hartu oharak, filmatu plano berriak eta irudikatu aniztasuna.

### **12 Komunitateak eraiki, esku hartu.**

Jorratu iturriak zureak ez diren komunitateetan, hala nola komunitate erlijiosoak, etnikoak, nazionalak, fisikoak, genero arlokoak... Bilatu solaserako prest dagoen jendea, eroso sentiarazten zaituena,

kazetaria zarelako bere inguruan gertatzen denaz informatuta eduki nahi zaituena. Parte hartu haien ospakizunetan, jardueretan eta ekitaldietan. Ezarri kontaktuak gizarteko erakundeekin, sindikatuekin, elkarteekin eta GKE txikiekin, hots, pertsonak parte hartzen duten eta ordezkaturik dauden taldeekin. Galdetu iezaezu beren bizitzako zein alderdiren berri ez den ematen edo agertzen komunikabideetan. Eska iezaezu zurekin harremanetan jartzeko zeezer gertatzen zaienean edo kezka sozial, politiko edo ekonomikoak dituztenean.

### **13 Zure iturriekin loturak ezarri.**

Elkarrizketatu beharreko pertsona batekin harremanetan jartzean, ezarri harreman profesional bat: utzi argi zein diren kazetari zaren aldetik dituzun helburuak eta asmoak. Erakutsi errespetua eta gizatasuna. Garatu konfiantzazko lotura bat. Zaindu haren pribatutasuna, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna, elkarrizketa zaileak hala eskatzen badu. Izan sentibera eta ez egin hurbilketa zakarrik; aniztetan, inorentzat jokabide zakarra edo bortitza suerta daiteke presaka aritzea edo informazio bat osatzeko orduan larri jokatzeko. Garrantzizkoa da lehenago izaniko balizko bizipen traumatikoak aintzat hartzea. Hautatu pertsona eroso eta segurua sentituko den leku bat.

### **14 Entzuleria zabaldu eta hedatu.**

Txertatu testuinguru batetik baino gehiagotatik datozen informazioak. Hau ez da justiziazko eta orekazko gaia



bakarrik; hedabideentzat garrantzitsua da ere negozio ikuspegi batetik. Hedabide askok pertsona talde txiki baten ikuspegira mugatzen dute beren audientzia potentzial guztia. Eginahala eginen balute albisteen eta erreportajeen estaldurak beste komunitate batzuetara hedatzeko, horko kideen eta protagonisten merituak azpimarratzeko, zalantzarik gabe entzuleria zabaldu eta hedatzen ahalko lukete.

### 15 Gehitzen duten irudiak.

Tituluetan bezala, informazio atal bateko irudiek informazio ugari eman dezakete bistako batean. Izan zaitez hitzekin bezain zorrotza testuei lagun egiteko hautatzen dituzun argazkiekin.

Inportantea da kontaktzen den informazioari zuzenean atxikitzen zaizkion irudiak erabiltzea, ohikoa baita artxiboko irudiak gehitzea migrazioaren arloko egitateak dakartzaten albisteetan. Era berean, informazioarekin bezalaxe, ez erabili beti bazterketa jasaten ari diren gazteen irudiak, hesien atzean eta mugetan edo zentro itxietan; eta, argazkiak egitean, saia zaitez pertsona migratzaileak herritar gisa eta ez bakarrik migratzaile gisa erakusten. Hau da, haien egunerokoa paratu behar da irudietan. Bestela, estereotipoak sorrarazteko arriskua dago. Azken buruan, irudi batek kalitatea gaineratu behar dio informazioari, eta inoiz ez alderantziz.



### OHARRA:

Gida hau irekita dago ekarpen berrietara, eta arrakastarik izanzen du, baldin eta komunikazio arloko profesionalak jarrera irmoa erakusten badute jarrera arrazisten eta xenofoboena aurka. Hedabideak konpromiso komun batean inplikaturik, gizarte irekiago eta solidarioago bat eraiki daiteke.

## ERAKUNDE ETA ADMINISTRAZIOTIK NOLA KOMUNIKATU

Administrazio publikoek, gizarteko ordezkariak eta gizarte erakundeek zorrotz eta bikaintasunez aplikatu behar dute beren jakinarazpenetan duten ardura giza eskubideen bermatzaile diren aldetik; eta ardura hori bera dutelako egin behar dute. Eskubide horien bermean sartu behar dira, halaber, ohorea eta pertsona migratzaileen ospea babestea, orobat estigmatizazioaren aurka egindako borroka irmoa.



Era berean, herritarrei konprenitzen laguntzen dieten informazioak eta komunikazioak eratu behar dira, eta hedabideetako profesionali beren lanerako behar dituzten tresnak eman.

Zorionez, geroz eta hedabide eta kazetari gehiagok kultur aniztasunaren inguruan informatzerakoan duten erantzukizunaren kontzientzia hartu dute; hori dela eta, gero eta tratamendu “bidezkoagoa eta duinagoa” ematen zaie pertsona migratzaileei.

Instituzioek eta erakundeek diskurtso proaktibo bat eraikitzeko apustua egin behar dute migratzeko eskubidearen legitimotasun unibertuala aldeztuz, migratzen dutenen duintasuna babestuz eta errealitate anizkunen aitortza indibidualizatua eginez.

Pertsona migratzaileek aukerak irekiko dizkien bizitza berria aproposena iruditzen zaien lekuan hasteko duten eskubidea erabili nahi dute. Eta hori bereziki garrantzitsua da babesik gabe dauden edo babesik gabe gelditzeko arriskuan dauden haur eta nerabe migratuen kasuan. Aldi berean, eskuragarriagoak izan behar dute migrazioari eta aniztasunari buruzko datuek eta errealitateek.



## IDEIAK ETA GOMENDIOAK

### PERTSONA MIGRATZAILEEN AHALDUNTZEA

Instituzio publikoak eta gizarte erakundeek behin betiko baztertu behar dute “paternalismoa”, eta beren jarduerak eta lan ildoak jakinarazi ez ezik, komunikazio publikoen espazioak, ikusgarritasuna, mikrofonoak eta komunikazio publikoen proiektzioa erraztu behar dizkiete egiaz politika publikoen eta haien ekintzen protagonista direnei.

Komunikazio politika hori diseinatzeko, aski da migratzaileak —hau da, gure gizartearen aniztasuna irudikatzen duten pertsonak— ahalduntzea, zertarako eta beren bizipenen egiazko protagonistak izan daitezen. Alde horretatik, instituzioek eta erakundeek prozesu parte hartzaileak erraztu behar dituzte eta pertsona migratzaileei tresnez hornitu, zeregin hori bermeeekin egin dezaten, beren burua sobera erakutsi beharrik izan gabe, haien erantzukizunaren eta irizpideen arabera.

Nafarroako Gobernuak datuak eta iturriak ahal den errazena eskuratzeko modua eman behar dizkie hedabideei eta kazetaritzaren arloko profesionali, beren zeregina ahal den modurik osoenean egin dezaten.

Era berean, pertsona migratzaileei ahal den heinean hedabideekin aritzeko ezarriak dauden bideak erraztu behar zaizkie, kontu migratzaileetatik kanpo dauden ikuspuntuak emateko, kezkak azaltzeko eta bizipenak kontatzeko modua izan dezaten, beste kolektibo batzuek hedabideotan protagonista finkoak izateko duten modu berean (nafarrak atzerrian, lan bereziak dituztenak, eta abar).

## DISKURTSO BAIKORRAREN ALDEKO APUSTUA

Bortizkeria eta polarizazio giro hau ikusita, Administrazio Publikoek eta erakunde eta elkarteek hartzaile den entzuleriarengana hurbiltzen gaituzten narratibak ezarri behar dituzte ulermenezko eta enpatiazko testuinguruetatik.

Komunikazio estrategiak proaktiboa, konstantea eta sotila izan behar du. Entzuleria zabaltzen saiatu beharra dago, eta mezuak jende gehiagorengana iristarazten —modu originalagoak erabiliz—. Anitzetan, pertsonak ez dute izaten pertzepzio ez ezkorrik eta ez baikorrik migrazioaz edo kultur aniztasunaz edo bizikidetzaz; anitzetan, aurreiritziak, ezagutza falta eta interes falta izaten da, besterik gabe. Komunikazioaren erronka da mezuen bitartez haien interesekin eta bizipenekin konektatzea, hasiera batean ezaxolati sumatzen diren entzule horiek bizikidetzaren eta kohesio sozialaren aldeko jarrera arduratsuagoetara erakartzea. Senti dezatela aintzat hartuak direla.

Kontakizunetan, gaiok arazo gisa planteatu beharrean, irtenbide gisa planteatu behar dira. Jakina, giza eskubideez ari garenean, hauen urraketak daudenean, horiek salatu ez ezik, aldi berean eskubide horiek errespetatzea eskatu behar da, defentsa irmoa egiten duten mezuen bitartez; baina betiere, ahal den heinean, herritarrei proposamenak eginez eta parte hartzera gonbidatuz egin beharra dago defentsa hori.

## TOKIKOARI GARRANTZIA EMAN

Migrazioak egitate global eta unibertsalak dira, eta munduko txoko guztia ukitzen dituzte. Hori dela eta, migrazioen nahiz kultur aniztasunaren alderdiak lantzen hasi aitzin, gorabehera orokorrez eta globalez aritu beharrean, administrazioek eta erakundeek ikuspegi lokalaren eta hiperlokalaren aldeko apustua egin behar dute. Diskurtso guztiak dira ulerterrazagoak inguru hurbilari, familiari eta espazio ezagunei erreferentzia egiten badiete.

Milaka kilometrora gertatzen diren egitateen eta gorabeheren inpaktu eta ondorioei arrotz egiten diegu, baina gure auzoetan eta herrietan bizi direnen gorabeherak sentitzeak eta entenditzeak parte sentiarazten gaitu. Erakutsi nolako ondorioak dituzten atzerritarren legeek, harrera eta asilo prozesuek eta familiak berriz elkartzeko zailtasunek orobat gure herritarrengan.

Kontatu nolako ekimenak eta soluzioak ematen dituzten auzo elkarrekin, udalek eta oinarriko kolektiboek gure herri eta hirietan. Ekintza partekaturako espazio hurbil bat dugunean, gu ere inplikatuak sentitzen gara, aldaketarako eragile, eta gure erantzukizuna da.

## GORROTO DISKURTSOA BORROKATU ETA ORDEZKATU

Instituzio publikoen eta gizarte erakundeen betebeharra gorroto diskurtsoak agerian utzi, eta beren testuinguruan jartzea da: kontua ez da gertaera bakartu bat dela, baizik eta estrategia global baten parte dela, zeinak gorroto mezuen bidez diskriminazioa eta haustura soziala sustatu nahi baititu.

Anitzetan, administrazio publikoak, bere isiltasunekin eta erantzun desegokiekin edo diskurtso luzeekin, zeinak gehiegi lerratzen baitira borroka politikoaren arlora, eta elkarteek beren diskurtso tekniko eta konplexuegiekin —orobat norbere burua zuritzeko mezuekin— ez dute asko lagundu izan pertsonen bizitzen gaineko gorroto diskurtsoa eta ondorio galgarri eta kaltegarriak baliogabetzen.

Erakunde, sozietate eta eragileek —kirol erakundeak, auzo elkarteak, enpresa zirkuluak, sozietate gastronomikoak, musika taldeak, talde erlijiosoak, talde kulturalak...— aliantzak eta konplizitateak sortu behar dituzte diskurtso mota horietan kaltetuak, umiliatuak eta atsekabetuak sentitzen diren biztanle sektore zabalekin. Eta, hala, denon artean, seinalatu eta legitimotasuna kendu.

Gorroto diskurtsoak —berdin dio nondik datozen— pertsonen aurkako indarkeriazko ekintzak dira. Eta delitu eta arau hauste bilaka daitezke. Gure gizartean beste indarkeria mota batzuk dauden bezala, ahozkoa ere izan daiteke, behin eta berriz gutxiestea eta diskriminatzea. Gorroto diskurtsoen tolerantziak hutsaren hurrengoia izan behar du.

Komunikazio politika aktibo bat sustatzea komeni da gizartearekin (oro har) eta komunitateekin, auzoekin, herritarrekin eta toki erakundeekin, baita proiektu berriak martxan jartzen direnean, errefuxiatuak hartzen direnean eta egoera zurgarrian direnak babesteko gizarte baliabide berriak eskura daudenean ere.

Adibidez, komunitate batera edo herri batera baliabide publikoko egoitza batean egongo diren auzotar berriak iristean, horrek beharbada komunikazio aktiboko politika bat martxan jartzea eskatzen du komunitate hartzailearekin/harrera-egilearekin. Proiektuak aurkez daitezke parte hartzaileei, jarduera sozialak elkarrekin programatu; adibidez, otordu bat edo egun pasako jokoak, eta abar. Azken batean, topaketa sustatu eta ezagutza falta borrokatuko duen edozein jarduera, hori izaten baita erreakzio sozial ezkorren, aurreiritzien eta zurrumurruen sorburua.

Violeta Velasco eta Lucila Rodriguez-Alarcon ikertzaileek beren dossierrean dakarten bezala, **“Gorrotoko diskurtsoa ordezkatzeko kontakizun berriak behar dira”**, borrokatu baino gehiago ordezkatu.

Gorrotoko diskurtsoak gizarteko sektore asko jo ditu, eta “aitortu beharra dugu asmatutako gauzak izanagatik migrazioari beldurra izatea eta segurtasun falta sumatzea zilegi dela. Zeren eta beldurra sentitzea beti da zilegi —logikoa ez ezik— inguratzen gaituenaren moduko testuinguru narratibo hain sumingarrietan. Hori dela eta, espazio narratiboak konkistatzea lortzeko lehenik informazioaren hartzaile direnen aldeotasuna lortu beharko dugu elkarrizketaren bidez, non alderdi guztiei entzun beharko baitaie”.



Gezur horien aurka egiteko, apustu egin beharra dago migrazioaren eta Nafarroako gizartearen errealitatea erakusten duten datu objektiboak zabaltzearen alde, nola eta, esate batera, legediaren gaineko pedagogia sartuta, zeinak, kasu askotan, haien oinarritzko eskubideak eragozten baititu.

Migrazioaren errealitatea testuinguruan jartzen duten datuak ez dira soilik numerikoak. Administrazioak jakin behar du hori, aintzat hartu, eta datuok ahalik eta gehiena erraztu; era berean, behar bezala jakinarazi behar du nolako babes sistemak dauden, behar bezainbat aldiz, ezagunak izan daitezen, eta ez opakuak edo hutsalak. Eta, beharbada garrantzitsuena: gezurrak desmuntatzen eta errealitatea buruz buru jotzen duten diskurtsoak “lehenengo pertsona” ematen saiatu behar da.

Erakundeen eta kolektiboen arteko sareak sortu behar ditugu informazio faltsua detektatzeko eta hedatzeari uzteko, orobat sustatu zirkulu profesional, sozial, pribatu eta publiko guztietan, kontzientziazio eta sentsibilizazio handiago bat erantzukizun zibil, sozial eta penalen gainean horrelako mezu kaltegarri eta laidogarriak sare sozialen bitartez eta mezularitza zerbitzuen bitartez zabaltzen direnean.

Era berean pixkanaka baina etenik gabe gizartearenganako sare sozialak erantzukizunez erabiltzeari buruzko zeregin pedagogiko bat gauzatu beharra dago, orobat gorroto diskurtsoen salaketa mekanismoez eta bertan aurki daitekeen estigmatizazioaz.

## CÓMO COMUNICAR DESDE LAS ENTIDADES Y LA ADMINISTRACIÓN

Las diferentes administraciones públicas, como representantes de la sociedad, así como las entidades sociales deben ejercer con rigor y excelencia la responsabilidad que tienen en sus comunicaciones como garantes de los derechos de las personas; y han de hacerlo por esa misma responsabilidad. La garantía de esos derechos incluye también la protección del honor y la reputación de las personas migrantes, así como una lucha decidida contra su estigmatización.

Asimismo, implica una elaboración de informaciones y comunicaciones que faciliten a la ciudadanía su comprensión y a profesionales de la comunicación les brinden las herramientas necesarias para su trabajo.

Por fortuna, cada vez hay más medios y periodistas con experiencia y conciencia de la responsabilidad que conlleva informar sobre los procesos migratorios y la diversidad cultural, lo que hace que cada vez haya un tratamiento “más humanizado y digno” de las personas migrantes.

Desde las instituciones y entidades se debe apostar por la construcción de un discurso proactivo sobre la legitimidad universal del derecho a migrar, la protección de la dignidad de las personas que migran y un reconocimiento individualizado de sus diversas realidades.

Las personas migrantes quieren, deben y pueden ejercer su derecho a comenzar una nueva vida con oportunidades allá donde crean más conveniente. Y esto es especialmente importante resaltarlo en el caso de niñas, niños y adolescentes migrados en situación o riesgo de desprotección. Paralelamente, se debe fomentar mayor accesibilidad a los datos y realidades sobre la migración y la diversidad.

## IDEAS Y RECOMENDACIONES

### EL EMPODERAMIENTO DE LAS PERSONAS MIGRANTES

Las instituciones públicas y las entidades sociales deben abandonar definitivamente su “paternalismo” y además de comunicar sus actividades y líneas de trabajo deben facilitar los espacios, la visibilidad, los micrófonos y la proyección de las comunicaciones públicas a aquellas personas que son verdaderas protagonistas de las políticas públicas o sus acciones.

Para diseñar esta política de comunicación, se trata simplemente de empoderar a las personas migrantes, a las personas que representan la diversidad de nuestra sociedad, para que sean ellas mismas las verdaderas protagonistas de sus vivencias. Para ello, se debe facilitar desde las instituciones y entidades los procesos participativos y dotar de herramientas a las personas migrantes para que puedan ejercer ese papel con garantías, sin sobreexponerse, bajo su responsabilidad y criterios.

Desde el Gobierno de Navarra se debe ofrecer la máxima facilitación de datos y fuentes a los medios de comunicación y profesionales del periodismo para que estos puedan ejercer su labor de la manera más completa posible.

Asimismo, se debe facilitar, en la manera de lo posible, que las personas migrantes utilicen las vías de comunicación con los medios establecidas para que así puedan, desde su punto de vista particular, visibilizar sus inquietudes y experiencias vitales, más allá de la migratoria, del mismo modo que otros colectivos (navarros en el extranjero, personas con trabajos particulares, etc.) son protagonistas más o menos fijas de los medios de comunicación.

## APUESTA POR UN DISCURSO EN POSITIVO

Frente al clima de agresividad y polarización, es fundamental desde la Administración Pública y desde las entidades y tejidos asociativos establecer narrativas que nos acerquen a las audiencias a las que nos remitimos desde entornos de comprensión y la empatía.

